



# five!

elkarlanaren adibidea

## EUSKAL HERRIA ETA ETORKINAK HIZKUNTZATIK ABIA GAITEZEN

Zabala, San Franzisko eta Bilbo Zaharra auzoetan, Palanka Euskara Taldea euskal kulturaren alde eta euskarak erabilera normalizatua izan dezan lan egiten ari da.

Jadanik urtebete izango da hiru auzoetan euskararen egoera baloratu eta aztertu genuena, (hiru auzo hauetan ez dago ikastolarik, ez euskaltegirik, eskolatan ez dago euskal eredurik). Hutsune galanta ikusirik eta euskara irakasikastearen alde zerbait egiteko gogoia izanik, gure proposamena euskara ikastaroa sortzea izan zen. Proposamenarekin aurrera egiteko GITE-IPES elkartearekin jarri ginen harremanetan. Hiru auzoetako euskararen egoeraren diagnostiko berbera egin ondoren, bultzatu beharreko helburuetan bat egin genuen.

Hortik aurrera, 2.003 urte honen hasieran, ikastaroa prestatzen hasi ginen; hiru auzoetako sentsibilitate guztiak erakarriz (bertokoak, ijitoak, bereberrak, afrikarrak, hego amerikarrak...), herritar hauek euskara ikasteko borondatea sustatuz, auzoetan euskara zabaldu eta non bizi garenaren berri zehatzagoa izan dezaten helburuari ekin genion.

Maitza-ekainerako lehen euskara ikastaroa sortu genuen, 30 ikasle apuntatu eta euskara hutsetik ikasten hasi ziren. Ez da baina euskara irakaste soila gure helburua, ez baikara euskaltegi bat. Euskara ardatz moduan hartuta "Euskal Herriari buruzko saiok" bideratzea izan da gure helburu nagusia. Non bizi garen azaldu, nola pentsatzen dugun euskaldunok, ze historiatik edan dugun, ze hizkuntza den euskaldunona, gure kulturaren oinarrietan sakondu... Hau da, euskara, euskal dantzak, Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldiak e.a.

Lehen eta aurreneko euskara ikastaroa denontzat oso positiboa izan zen, ikasleak nahiko motibaturik eta animaturik hurbildu ziren eta azterketa eta balorazioa eginda, euskara ikastaroarekin jarraitzea erabaki genuen.

Orain, urria-abendua artean, euskara ikastaroarekin gabilta. 45 ikasle ditugu, lehen zikloan 30 ikasle, bi taldetan banaturik, bigarrenean 15. Ikasleak bere burua eta ingurua euskaraz ezagutzen, aurkezten eta identifikatzen ari dira, ondoren harreman sozialak, ohiturak, erlazio ezberdinak... ezagutzen eta euskaraz elkarrizketak egiten saiatzen ari dira.

Hasieratik jarri genituen ilusioa eta gogoia indartu eta aberastu egin dira. Ideia eta proposamen berriak lantzen ari gara. Gure gogoia da datorren ekainera arte euskara ikastaro hauekin jarraitzea, baina, horretarako hiluhileroko balorazioak eginez. Izan ere, euskara irakas-ikasteak merezi du, merezi du hiru auzo hauetan euskararen alde aritzeak.

Bitartean, zer esango dugu! Ba, hauxe: lehen euskara ez zekien ikasle bati euskaraz hitz egiten entzutea oso polita eta atsegina dela. Batez ere afrikar, hego-amerikar, ijito... bati. "Zer moduz", "Ondo, eta zu", "Nor zara zu"... entzuteak, poztasun handia ematen digu guri, bihotzean hotzikara goxoa sentitzen dugu eta proiektu honekin aurrera egiteko indarra eta ilusioa ematen dizkigu. Merezi du euskararen alde hiru auzo hauetan konpromiso zintzo honekin jarraitzea, gure aldetik aukera hau behintzat ez dugu galtzen utziko.

Besterik gabe, ekin lanari

AMETZAGAÑA 19  
Behesolairua,  
DONOSTIA 20012  
TF.- 943 27 55 61  
e-posta:  
joxemi@joxemi.org  
http://www.joxemi.org

KOORDINATZAILEAK  
Juan Ignacio Arrieta  
Susana Martinez

HIZKUNTZA  
ARDURADUNA:  
Amaia Artola

MAKETAZIOA:  
Mikel Peruarena

Txubilo inprimategian egina 35-46 3197

62.  
zenbakia

2003ko  
abendua



## ABENDUKO DEIALDIAK

### 2an

**DOKUMENTALA:** "En Construcccion" Gasteizko Gaztetxean 20:00etan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 3an

**HITZALDIA:** "Euskal Herria Europar Konstituzioan", Donostiako Amara Berri auzoko Ilunki Kultur Elkartean 19:30tan. Antolatzailea: Ilunki Kultur Taldea.

### 5an

**KONTZERTUA:** Oskorriren "Desertore" disko berriaren aurkezpena, "Zornotza" aretoan 21:00etan. Antolatzailea: TOPAGUNEA-Euskara Elkartearen Federazioa.

### 6an

**TRUKE EGITASMOA,** dirurik gabe gauzak lortu daitezkeela praktikara eramateko saioa, Gasteizko Gaztetxean 11:00tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

**KONTZERTUA:** Kisap taldearekin, Gasteizko Gaztetxean 22:00tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 7an

**ANTZERKIA:** "El feeling es asi" antzeslana TEARTO taldeak eskeinia, Gasteizko Gaztetxean 20:30tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 8an

**MANIFESTAZIOA:** AHT-ren iruzur bidezko inposaketa gelditzeko mobilizazioa. Durangon, eguerdiko 12:00tan. Antolatzailea: AHT GELDITU! ELKARLANA.

### 11ean

**KONTZERTUA:** Amnistiaren aldeko kontzertua, Gasteizko Gaztetxean. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 12an

**PINTXO LEHIAKETA,** Hernaniko AEK euskalte-

gian, 20:00etan. Antolatzailea: Hernaniko AEK  
**DISKO LIBURU BERRI BATEN AURKEZPENA:** "Zaharregia, txikiegia agian", Kirmen Uribe (hitzak), Mikel Urdangarin (gitarra eta ahotsa), Bingen Mendizabal (biolina), Rafa Rueda (gitarra elektrikoa). Gernika-Lumoko "Liceo" antzokian 22:00etan. Antolatzailea: TOPAGUNEA-Euskara Elkartearen Federazioa.

### 13an

**KONTZERTUA:** Ruper Ordorikaren, "Kantuok jartzen ditut" disko berriaren aurkezpena. Bilboko "Arriaga" antzokian 20:00etan. Antolatzailea: TOPAGUNEA-Euskara Elkartearen Federazioa.

### 14ean

**ANTZERKIA:** "El Irlandes intrepido" McReak eskeinia, Gasteizko Gaztetxean 20:30tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

**MENDI IRTEERA,** aurrez izena eman behar da eta ordua eta lekua jakiteko aste bete lehenago deitu behar da sumendira. Antolatzailea: Bilboko Sumendi.

### 20ean

**KONTZERTUA:** "Tantan" eta "Akauzaste" taldeekin, Gasteizko Gaztetxean 21:30tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 21ean

**ANTZERKIA:** Fabrica de teatro imaginariok eskeinia, Gasteizko Gaztetxean 20:30tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 26ean

**ANTZERKIA:** "Las Punkies tambien lloran" Detritus taldeak eskeinia, Gasteizko Gaztetxean 20:30tan. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

### 28an

**GASTEIZKO GAZTETXEKO 3. INPROBIZAZIO TOPAKETAK,** hainat antzerkilari elkartuko dira denak elkarrekin inprobizatzen. Antolatzailea: Gasteizko Gaztetxea.

## KONTAKTUAK

**SUMENDI-BILBO:** 94-4100644

**BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA:** 94-4320445 // urtxin@euskalnet.net

**EDEX:** 94-4425784 // formacion@edex.es



# EMAKUME ABERTZALEON

## II. TOPAKETA FEMINISTAK

Abenduaren 12, 13

II. Topaketa hauetako ostiral eta larunbateko langaiak 4 arlo ezberdinetan banatu dira:

### 1. KULTURA

#### Ostiralean.

-19:30etatik 20:30etara: *Euskal emakumeon historia*. Hitzaldia: Alizia Sturtze.

#### Larunbat goizean.

-9:30etatik 14:00etara: *Kultura emozionala*. Hitzaldia: "Duoda" Centro de Investigacion de la Mujer (Bartzelona). Tailer ezberdinak Kultura emozionalaren inguruan: "Sexualitatea eta identitate ildoak", "Harremanak".

#### Larunbat arratsaldean.

-16:00etatik 18:00etara: bost bloke ezberdinetan landuko diren hitzaldiak:

1. *Jai-parekideak*. Mintegia, egoeraren azterketa eta gure proiektuaren azalpena. Bilboko jai baztordeko partaideak.

2. *Herri mugimendua*. Mintegia, eragileek beraien esperientziak kontatuko dituzte. Herri Mugimenduko partaideak.

3. *Emakumea Euskalgintzan*. Mahai ingurua, Anuntzi Arana eta Karmen Irizar.

4. *Kultura ekoizlea*. Mahai ingurua, Maialen Lujanbio, Aiora (Zea Mays), Loli Astoreka.

5. *Kirola*. Mahai ingurua, emakumea kirolean azterketa. Euskal Herriko hainbat kirolari.

Egun osoan zehar: pintura, eskultura, emakume idazleen testuen esposaketa.

### 2. SOZIOEKONOMIA

#### Larunbat goizean.

-9:30etatik 10:45etara: *Emakumeei Hitz* (emakume kolektibo ezberdinen egoera eta proposamenak ezagutzera eman; Prostitutat, Pentsiodunak, Etxeko andreak).

-11:00etatik 12:15etara: *Gai Desberdinak Aztergai* (osasungintza, kontziliazio politikak, kontsumoa, emakumeon gorputzaren erabilera).

-12:45etatik 14:00etara: *Alternatibak* (eragile sozialak, sindikalgintza eta mugimendu feminista).

#### Larunbat arratsaldean.

Emakumeon egoera sozio-ekonomikoa aztergai.

-16:00etatik 16:45etara *Kapitalismoa eta Patriarkatua*.

-16:45etatik 17:30etara: Tailerrak gai hauetaz: *nekazaritza, industria, zerbitzuak, autonomoak eta merkatu izkutua, lan erreproduktiboa*.

-17:30etatik 18:00etara: *Plenaria*, tailerren ondorioak.

### 3. KOMUNIKABIDEAK

#### Ostiralean.

-19:30etatik 20:30etara: *Aurkezpena* (Leitzako Topaketen errepassoa, Diagnostikoa eta Estilo Liburuak).

#### Larunbat goizean. (bi gunetan banaturik):

1.-9:30etatik 11:30etara: *Komunikabideen analisi kritikoa*. Tailerra.

2.-12:00etatik 14:00etara: *Telebista, hezkuntza eta boterea*. Tailerra.

-10:00etan: *Estilo Liburuaren aurkezpena* (Hizkuntza, edukiak eta irudia). Bilgune Feministako kideak.

-11:15etatik 13:30etara: *Lan taldeak*: 1) Estilo liburuaren praktika, 2) Proposamenak eta konpromisoak, 3) Sarea.

#### Larunbat arratsaldean.

-16:00etatik 18:00etara: Gai desberdinak aztergai: 1) *Ziberfeminismoa*. Teknologia berriak emakumeen eskuetara. Hitzaldia. 2) *Emakumeak Euskal Herriko komunikabideetan*. Mahai inguru-etzabaida. Euskal Herriko komunikabideetako emakumeak.

### 4. IRAKASKUNTZA

#### Ostiralean.

-19:30etatik 20:30etara: *Aurkezpena*.

#### Larunbat goizean.

-9:30etatik 11:30etara: *Esperientzien azterketa* hiru gunetan banaturik:

*Emakumeon papera jakintza trasmisioan*. Hitzaldia

*Hezkuntzaren garrantzia Latinoamerikako emakumearen askapen prozesuan*. Hitzaldia. Klara Murgialdai (Nikaragua).

*Hezkidetzaren esperientziak*: Eskola Anarkistak, Segregazioa... Mahai ingurua.

-12:00etatik 14:00etara: Mahai inguru orokorra.

#### Larunbat arratsaldean.

-16:00etatik 18:00etara: Proposamenen lanke-ta. Bi atal: 1) *Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala*. Euskal Herriak Bere Eskolako kideak. 2) *Euskal Kurrikuluma*. Esti Amenabarro.

#### Igandeko hitzaldiak. (3 ataletan)

1.- Lehenengo atala: *EMAKUMEEI HITZA* Etorkinak, gazteak, nekazariak, mugimendu feminista, lesbianak.

## eta 14ean Eibarren

2.- Bigarren atala: *GAI OROKOR DESBERDINAK*.

Ba al dago EHn demografia arazorik? Traiektoria historikoa, gaur egungo egoeraren deskribapena eta zergatia, feminismoa honen inguruan.

Drogomenpekotasuna.

Indarkeria sexista.

Maskulinitatea. Identitateak.

3.- Hirugarren Blokea: "MITOAK BIRRINDUZ ZIENTZIA BERRERAIKITZEN" Positibak, biologia, historia, filosofia.

### HITZALDI OROKORRAK

#### LARUNBATA 13:

-18:30etatik 20:30etara:

*"Izan da edo izan daiteke Ongizate Estatuaren eraldakuntza sozialerako tresna? Zer da AEBetatik proposatzen zaiguna, zein dira Europar Konstituzioarekin aurkezten zaizkigun espektatibak? Nola kokatzen dira joera feminista desberdinak errealitate hauen aurrean?"*

#### IGANDEA 14:

-16:00etatik 18:00etara:

*"Emakumeok eta feminismoa nazio eta sozial askapen prozesuetan". Soviet Batasunaren esperientzia: iraultza, etapa desberdinak, gaur egungo egoera. Latinoamerika: iraultza mugimenduak, emakumea eta feminismoa. Afrika: deskolonizazio prozesuak, emakumea eta feminismoa. Islama. Palestina...*

#### **IZEN EMATEKO:**

**A Aukera** Hiru egunak (bi afari, bi bazkari bi gosari eta lo egiteko lekua):

Langileak: 45 euro.

Langabetuak edo ikasleak: 25 euro.

**B Aukera** Bi egun (bi bazkari, gosari bat, afari bat eta lo egiteko lekua):

Langileak: 35 euro.

Langabetuak edo ikasleak: 15 euro.

**D Aukera** Egun bakarra (bazkaria):

Langileak: 20 euro.

Langabetuak edo ikasleak: 10 euro.

**Kontu korrant.** 3035 0200 87 200.0.01118.3

**Informazioarako telefonoa** 605769469

**Oharra** Apuntatzerakoan izena eta zein aukeratzeko den agertu behar da.

## URTXINTXA ESKOLAREN IKASTAROAK

### 1. MONOGRAFIKOA:

**IZENBURUA:** Heziketa berezia

**NOIZ:** Abenduak 13 eta 20

**ORDUTEGIA:** 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

**NON:** Urtxintxa Bizkaia, Zabalbide 26, Bilbo.

### 2. MONOGRAFIKOA:

**-IZENBURUA:** Kultureniztasuna eta generoa.

**NOIZ:** Abenduak 16 eta 18.

**ORDUTEGIA:** 16:00etatik 20:00etara.

**NON:** Urtxintxa Bizkaia, Zabalbide 26, Bilbo.



## "NOLA SORTU ELKARTZE-SAREAK: INDARRAK BATU EMAITZAK BIDERKATZEKO"

### ABENDUAK 12-13

12 orduko mintegi trinkoa, 3 saiotan banatua.

**Ostirala:** 16:00etatik 20:00etara.


**Larunbata:** 9:30etik 13:30etara eta 15:30etatik 19:30etara.

**IZEN EMATEKO:** 25 euro, larunbateko bazkaria eta "Redes Asociativas" liburua barne. Izen ematea abenduak 8 baino lehen egin behar da.

**Antolatzailea:** Edex.

# KONTSUMITZEKO BIZI EDO BIZITZEKO KONTSUMITU?

"Bizi maila" kontzeptuak (goranzko gastu ahalmena bezala ulerturik) "bizi kalitate" kontzeptua ordezkatu izanak honakoa ekarri du eskutik: behar denaren kategoria baztertu du, pribatua eta desegokia den kontsumorantz doan lasterketa ero batetara eramanez. Honen ondorioak begibistakoak dira: ingurugiroaren hondamena, gure osasuna kudeatzeko erabaki ahalmena galtzen joatea, ekonomikoki herri garatuek burutzen duten hegoaldeko herrien lapurreta. Horretarako, besteen errekurtsioez baliatu behar dira, lehengaiak abiadura handian hondakin bihurtzen dituen sistema bat mantentzeko.



Klinexaren gizartean, erabili eta bota egiten den gizartean, joera hauek era hain indartsuan ari dira gure buruetan sartzen, non lurrarekiko aurrerapen oldarkorrena eta kapitalismo bortitzena ere gure eguneroko egitekotan zilegitzen ditugun. Gure egunerokotasun horretan, eta batez ere urte amaierako egun hauetan, inoiz baino erasokorragoak agertuko zaizkigu gure postontziko iragarki tona horiek guztiak .

Azaleko ondasun eta zerbitzuak, inongo erabilgarritasunik gabekoak, beharrezkotzat jotzea lortu du iragarkien bidez garatu den kontsumismorako heziketak. Azken finean dirua, berau lortzeko sakrifikatu den bizitza baino gehiago balio izatera iristen da. Orduan diru horri zentzua ematen dion zerbait bilatzen hasten gara, kontsumismoa adierazten duten sinboloetan. Hortaz, izan ala edukiren arteko tira-bira honetan, azken hau atera ohi da garaile.

Eduki honen garaipenak baditu beste ondorio

batzuk ere azpimarratu behar direnak: talde gozamenena (natur edo hiri ingurunea elkar topatzeko gunetzat hartuz) plazer pribatuengatik (errealitate birtualez betetako toki itxiak) ordezkutzen den neurrian, kontsumo jaungoiko honek nortasuna bildukin bihurtzen du, kotxea askatasun eta txaleta subiranotasun.

Aske izan nahi baduzu, kontsumismoari aurre egin! Askatasunaren esparrua beharraren denbora amaitzen den tokian bakarrik hasi daiteke.

## EROSI BAINO LEHEN PENTSATU:

- Benetan behar dut? Edo jaso dudana propagandak horixe pentsatzera eraman nau, telebistak, e.a.
- Ingurugiroarentzat kaltegarria ote da? Eguberrikako zuhaitzak, ezbeharrezko azalak, PVC, CFCak, e.a.
- "Made in Euskal Herria" al da? Edo urrunetik ekarritakoak dira, ez dira hemengoak eta freskoak, e.a.
- Birziklagarria eta ekologikoa al da? Plastikoaren ordeztu beira edo papera, ekoizpen garbi batetik dator, e.a.
- Osasunarentzat kaltegarria ote da? Etiketan informazio nahikoa agertzen da? kontserbanteak, transgenikoak, e.a.
- Egin zuen langilea egoera justu batetan zegoen? Edo kontratu zaborra zeukan, ETT batetan lan egiten zuen, e.a.
- Munduko herriekiko elkartasuna adierazten dut? Bidezko merkataritza sustatzen dut? Edo haiek esplotatzen jarrai dezaten laguntzen dut, e.a.

**MANUAL DE GUERRILLA DE LA COMUNICACIÓN.**

**Grupo autónomo a.f.r.i.k.a./ Luther Blisset/ Sonja Brünzels  
Virus argitaletxea, Bartzelona, 2000.**

Zinez interesgarria den liburu honetan, egileen esanetan haxe topatuko dugu: "tresna ezberdinen kutxa moduko bat, hitzez, metaforez, imajinez eta ideei praktikoetaz beteta, nolabait ideia guzti horiek praktikara eramateko aukeraz hausnartu araziko duena".

Liburu honetan hausnarketa eta ekimen eraldatzailearen grina hertsiki lotuta doaz. Komunikazio gerrillaren kontzeptuaren bitartez politika egiteko modu berriak irudikatu eta era berean modu berri hauek gauzatzeko gonbitea luzatu nahi dute egileek. Komunikazioaren gerrillak inposatzen zaigun normaltasun eta ustezko ordenuaren naturaltasuna zulatu nahi du. Horretarako boterearen zilegitasuna zalantzan jarriko du utopiaren espazioa elikatuz. Komunikazio gerrillaren egitasmo zehatza: dagoenaren ustezko ukiezintasunaren kritika burutzea.

Helburu horiei loturiko praktika politiko berri hori sustatzeko, liburu hauen egileek hainbat taldeen ideia eta esperientziak jaso dituzte. Egia esan liburu osoan zehar makina bat ideiei eta proposamen daude talde ezberdinen eguneroko lanari begira lagungarri izan daitezkeenak, "Principios y Metodos" eta "Prácticas y Ocasiones" kapituluak horren adibide.

Azkenik esan, proposamenez beteriko liburu honetan ohiko atal bibliografikoaz gain, proposamen ezberdinekin loturiko Web guneen helbideak aurkituko ditugu, gai ezberdinetan sakontzeko aukera emanez. On egin dizuela!

**ANTE LA FALTA DE DERECHOS****¡¡RENTA BÁSICA, YA!!****Jose Iglesias Fernández (koord.)****Virus/Balandre argitaletxea, Bartzelona, 2000**

Ez dira gaurkoak, eremu sozialean sistema kapitalistak sortzen dituen ondorioen inguruan entzun diren ahots kritikoak: langabezia, prekarizazioa, bazterketa, txirotasuna eta mingarriena dena, gosea. Egoera hauek etxetik 10.000 Km<sup>2</sup> tara eta 100 metrotara ere, momentuko ekonomiako bozeramaleak Barne Produktu Gordinaren igoera nabarmenaren berri ematen digun bitartean.

Eta egoera honen aurrean zer egin dezakegu, ohiko galdera bihurtu da egoera hauek jasangaitzak direla pentsatzen duten talde eta sektore sozialentzat. Galdera honen aurrean ez dira gutxi pentsatzen dutenak Oinarrizko Errenta hori alternatiba bat izan daitekeela. Aipatu alternatiba hau argitzera, osatzera, fintzera eta aldarrikatzera dator esku artean dugun liburu hau.

Oinarrizko Errenta hau eskubide pertsonal, unibertsal eta baldintza-gabekotzat jotzen da liburu honen egileentzat. Errenta banaketa bidezko batentzat mekanismo egokia, zein babes sozialeko sistema alternatibo baten zutabe nagusia izan daitekeena; eta era berean, mobilizazio antikapitalista baterako oinarri izan daitekeena.

Edozein kasutan, ez dira gutxi gai guzti hauen inguruan sortzen diren eztabaidak. Eztabaida hauek jorratzeko liburua hiru atal nagusitan banatzen da. Lehenengo atalean, Oinarrizko Errenta honen justifikazio etiko eta politikorako argudioak topatuko ditugu. Bigarren atalean, Oinarrizko Errentaren bideragarritasuna aztertzen da, eskubide hau egikaritu den bi herrialdetatik irakaspenak atereaz; bata, Kuba bezalako herri txiki eta "behartsua"; bestea, Kanada bezalako herri handi eta aberatsa. Azkenik, hirugarren atalean Oinarrizko Errentaren inguruan dauden eztabaiden erreposoa aurkituko dugu: edukiko lituzkeen ondorioak lana eta ekoizpenaren antolakuntzarako, edo kontsumo eta aisialdi ereduarengan, edo eskubide honen finantziazioaz.

**HARPIDETZA TXARTELA**

Izen-abizenak:..... Taldea:.....

Helbidea:..... Herria:.....

PK:..... e-posta:..... Tlf:.....

Buletina etxean doan jasotzeko, harpidetza txartela bete eta helbide honetara bidali: JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA, Ametzagaíña 19, 20012 DONOSTIA //Tlf: 943275561 // Faxe: 943320693 //e-posta: joxemi2joxemi.org